

# noaua



NOAUA

## Agur musikatua 2025-26 ikasturte oparoari

Zumarte Musika Eskolak kontzertu sorta batekin amaitu du ikasturtea / 14 or.




NOAUA

**Lanbide Eskolak eta Usurbil FT taldeak piztuko dute jaietako suziria / 08-09**



NOAUA

**Uxue Trail mendi lasterketak marka guztiak hautsi ditu / 10-11**



NOAUA

**Udako ordutegia indarrean sartuko da hainbat udal zerbitzutan / 20**



**SANTIXABEL JAIETAKO GEHIGARRI BEREZIA**

**Iñaki Agirresarobek diaporama bat osatu du jaietako irudietan oinarrituta / 22**

JARRAI IEZAGUZU  
SARE SOZIALETAN



www.noaua.eus



@noauaastekaria




@noaua



Noaua Aldizkaria



@noauatb



sentitu - bizi - izan

 BARE 

- PADI (odontopediatria)
- ORTODONTZIA
- IMPLANTEAK
- ODONTOLOGIA BIOLOGIKOA
- ODONTOLOGIA ESTETIKOA
- SEDAZIOA



943 29 06 19 - Arrantzale kalea 63, ORIO

## NOAUA! Kultur Elkarteak banatzaile bila dabil.

*Astean 8 orduko kontratua, (%21,6ko jarduna).  
Ordutegi malgutasuna eskainiko da, norbera antolatzeko aukera.*

*Banaketa taldea osatu nahi dugu.  
Usurbil ezagutzea eta euskalduna izatea baloratuko da.  
Uztailen ikastaldia egin eta irailean hastekodisponibilitatea eskatzen da.*

*Bidali Curriculumak [elkartea@noaua.eus](mailto:elkartea@noaua.eus) helbidera  
uztailaren 5a baino lehen.*

**noaua**

# Alarma gorrian ekin genion asteari

Ia 40 graduko temperaturarekin agurtu genuen aurreko astea eta halaxe hasi dugu oraingo hau ere, beroaldi batean. Muturreko temperatura altua tarteko, alarma gorrian izan ginen astelehenean, hurrengo bi egunetan alerta larri. Udalak ekainaren 22an bertan eginiko sailen arteko "larrialdi bileran" neurri eta gomendio sorta" aztertu eta onartu zuen "aire zabaleko jardueretarako,

pertsona zaurgarrienei begirakoak eta laneko arriskuen ingurukoak". Hala, beste hainbatetan egin bezala, goizetik Askatasuna plazako aspertsorea martxan izan dute egunotan, leku gehiagotan jartzea aztertzearekin batera. Hondakinen bilketa zerbitzua aurreratu egin zuten, astearteroko ibilaldi osasuntsua bertan behera utzi zuten, San Joan suak pizteko eremuetan mangerak jarri zituzten... Ho-



Askatasuna plazako aspertsorea martxan izan dute egunotan.

rez gain, jakinarazi zuten, udal ekipamendu publikoak

babesleku gisa eskaintzea aztertzen ari da Udala.

## Garbigune mugikorra, Santuenean

Ekainaren 24ra arte Txokoalden izan eta gero, hilaren 25ean Santuenera aldatuko dute garbigune mugikorra eta han izango da uztailaren 2ra arte. Egun horretan, Kalezarrera lekuz aldatu arte.

Bestetik, hurrengo errefus bilketa eguna uztailaren 5a izango da.

## "Goazen kalera", herri erdigunean irailera arte

Ekainaren 16az geroztik bi aldaketa txertatu dituzte astearteroko ibilaldi osasuntsuen egitasmoan; batetik, abuztu amaiera artekoak herri erdigunean egingo dira. Bestetik, "paseo motzak izango dira, eta amaieran kafetxoa hartzeko aukera izango da lagunartean". 10:30ean, frontoitik abiatuta.

## Informazio postua, indarkeria matxistari aurre egiteko

Emagin elkartearen eskutik, bi baliabide eskainiko dituzte. Batetik, indarkeria matxistaren aurkako informazio gunea jarriko dute Mikel Laboa plazan uztailaren 3an eta 4an, 21:00-00:00 artean eta egun horietan arreta puntua egoituko dute Gaztelekuan, 00:00-06:00 artean.

## Ostiral honetan, Sareren mobilizazioa

Azken ostirala heltzearekin batera, Sarek deitutako mobilizazioa egingo da hilaren 26an 20:00etan Mikel Laboa plazan. Gogoan izan, hilabete hasieran Arrasaten eginiko agerraldi jendetsuan 2027ko urtarrileko Bilboko azken manifestazio nazionala izatea nahi dutena iragarri zuten.



**Argitaratzailea:**  
Noaua Kultur Elkarte  
Bordaberri 3, Eguzkitzaldea  
20.170 Usurbil  
943 360 321  
elkartea@noaua.eus

**Elkarteko lehendakaria:**  
Ugaitz Agirre.  
**Aldizkariko koordinatzailea:**  
Imanol Ubeda.  
**Kudeatzailea:**  
Alaitz Aizpurua.

**Erredakzio Batzardea:**  
Aritz Lasarte, Asier Gonzalez de San Pedro, Imanol Ubeda.  
**Diseinua:** Goiena.  
**Publizitate arduraduna:**  
Ane Ibargoien.

Tel.: 943-360 321  
publizitatea@noaua.eus  
**Banatzalea:**  
Iban Maribalar.  
**Lege Gordailua:** SS-668-96.  
**ISSN:** 1136-6818.

**Tirada:** 3.050 ale.  
**Inprimategia:**  
Antza inprimategia. Zirkuitu ibilbidea, 2. 20160 Lasarte-Oria.  
**Harremanetarako:**  
erredakzioa@noaua.eus



Gipuzkoako Foru Aldundia



Usurbilgo Udala

EUSKO JAURLARITZA

GOBIERNO VASCO



KULTURA ETA HIZKUNTZA  
POLITIKA SAILA

DEPARTAMENTO DE CULTURA  
Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA

## IRITZIA



UGAITZ AGIRRE

## Zeruak eta lurrak (20)

**K**atalina ezustean harrapatu zuen ahizpa txikiaren presentziak. Inolaz ere ez zuen esperoko odol bereko bat han topatzea. Urteak ziren haren inguruko berriak izan gabe, hiltzat jotzen zuen, eta beraz, aitarengandik jasotako guztiaren jabe bakartzat zeukan bere burua. Baina Helena han topatzeak ordura arteko uste guztiak hankaz gora jarri zituen.

"Zer egiten duzu hemen?", galdetu zion urduritasunak ezin ezkutatuta. "Sendikoa naiz oraindik, ezta? Nire etxean nago", erantzun zion.

Asko harritu zuen ahizpa txikiaren ziurtasunak eta lotsagabekeriak. Oroimenean, begirada erabat inozentea zeukan. Arraroa zen, arrarogegia Katalinarentzat. Begietara begira geratu zitzaion ate ertzetik. Asmoakasmatu nahian zebilen, baina arrotz batekin hizketan ari zela sentitzen zuen.

Munduan zehar bidaian ibili zela aitortu zion ahizpa txikiak. Aitak behin esana zion handitzean ulertuko zituela helduen gauzak, eta horregatik, mundua bera ikusi nahi zuen ea aitaren hitzek zentzurik ba ote zuten jakiteko. Oraindik gogoan zituen urkamendiko eta Troiako irudiak. Iltzatuta geratu zitzaizkion memorian, eta amesgaiztoetan itzultzen zitzaizkion mamu haiek. Sokak okertutako lepoak. Sugarrak kiskalitako haragiaren kiratsa.

"Eta horregatik ibili zara mamuen pare?", galdetu zion.

Ahizpa zaharra gogaitzen hasia zen. Gainera hitz egiten ari zitzaioela iruditu zitzaion, eta horrelakorik ez zuen onartuko. Katalinarentzat, Usurbilgo jauregi hura jabetza zerrenda bateko puntu hutsa besterik ez zen, eta bizirik zen artean, hara ahal bezain gutxien azaltzeko intentzioa zeukan. Ahizparengatik itzuli behar izateak sutan jartzen zuen. Ez zegoen tontakerietarako.

Jauregi honetan bizi nahi dut, aitortu zion azkenerako ahizpa txikiak. Denborak aldatu omen ziren, eta aldaketa haizeak ufa da bortitzez astinduko zituen txoko guztiak. Usurbil han galdua egonagatik ere, haizeak errotik altxatuko zituen zuhaitz zaharrak, eta Katalina itsu omen zegoen hori guztia ikusteko. Odola borborka jarri zioten ahizparen hitzek.

"Zer uste duzu zuk? Etorri zara jantzi moderno eta liberaletan liberalena bazina bezala, eta ni neu eskarmentatu nahi nauzu munduaz ezertxo ere jakin ez arren. Zergatik utzi behar dizut hemen bizitzen orain artean sendiaz ez arduratu ondoren? Alde hemendik, ez zaitut nire begien aurrean ikusi nahi!".

Ahizpa txikia hurbildu zitzaion. Pauso ziurrez, burua goian, kikiltzeko asmorik gabe.

"Joango naiz, bai, baina ez betirako. Poztuko zinen ahizpa txikia desagertu zenean, baina inoiz kasurik egin ez diezun mamu haien guztien ordezkari,

ri, inoiz desagertuko ez zaizun mamua izango naiz".

Urdaia auzoan, Usurbilen zaindari, palazio eder bat altxatu zuten azken urteetan. Aberaskumeren baten kapritxoak izango zela esaten zuten herrian, baina hara non Saroeko markesaren ahizpa txikiak agindu zuen, eta handik, herriaren zelatari, ahizparen asmoak zapuztea izan zuen asmo. Kontzejuan parte hartu zuen behin baino gehiagotan munduan zehar ikasitako Usurbila ekartzeko asmotan, eta aldi berean, ahizparen tratu eta negozioak zapuzteko intentzioz, obra publikoa finantzatu zuen. Txararentzako zinema aretoa izan zen horietako bat.

Berez, Saroeko lurrak ziren, baina lur haiek konfiskatzea lortu zuen kontzejuak Helenaren laguntzaz. Sutan jarri zuen Katalina, eta gogoaren kontra, berriro ere Madriletik atera behar izan zuen korrika eta presaka. Apaizaz lagunduta beharrean, abokatuak zeuzkan alboan.

"Justiziaren bidetik ezin bada, akabatu egin beharko dut ahizpa madarikatu hori. Ez dit larrugorritan utziko puztil horrek!".

**"JAUREGI HONETAN BIZI NAHI DUT", AITORTU ZION AZKENERAKO AHIZPA TXIKIAK**

## Padel pista eraikitzeke lizitazioa abian da

Usurbilgo Udaletik jakinarazi dutenez, padel pista eraikitzeke lizitazioa abiarazi dute. "Interesdunek uztailearen 15era arteko epea izango dute proiektuak aurkezteko: esleipen prozedurari jarraituz, irailean ebatziko litzateke, eta, horren ostean, esleipendunak hiru hilabete izango ditu lanak gauzatzeko. Guztira, 184.826,5 euroko inbertsioa izango da".

## Kiroldegiaren kanpoaldean, futbol pistaren ondoan

Pista berrian, kiroldegi kanpoaldean eraikiko da, futbol zelaiaren ondoan. "Zelai homologatua izango da, neurri ofizialekin bat eginez: 10 metro zabal eta 20 metro luze izango da, eta estalpea izango du, egun eguzkitsuetan zein euria denean eroso erabili ahal izateko. Estalpea olanazkoa izango da, eta itxitura, batik bat, kristal panoramikoduna", udal iturriek azaldu dutenez.

## Foru Aldundiaren laguntza bat baliatzen saiatuko dira

Pista honen eraikuntza, "udal-gobernuak 2023-2027 legealdirako prestatutako planaren barruan jaso zuen". Maiatzeko osoko bilkuran eginiko kreditu aldaketaren bidez jaso dute "kirol ekipamendu berria eraikitzeke partida. Kirol sailak azaldu duenez, zati bat Gipuzkoako Aldundiaren hurrengo Kirol Ekipamenduen Planaren bidez finantzatzen ahaleginduko dira, deialdia argitaratzen dutenean".

Okindegia-Gozotegia  
**LABE-GOXO**

**txirriStra**  
PLATER KOMBINATUAK  
BOKATAK · PINTXOAK  
**TABERNA**  
Kontseju zaharra, 13 Tel 943 36 04 66

**Patxi**  
bazkariak EGUNERO  
afariak ostirala eta larunbata  
© 943 362725 · © 688 690 361



Erraustegiko langileek ekainaren 23an eginiko elkarretaratzea.

## Erraustegiko langileek lan-baldintza duinak eskatzen segitzen dute

Hilabete hasieran Gipuzkoa-ko Foru Aldundiko ordezkari-ritza batekin bildu arren, lan gatazkak ez du konponbiderik momentuz. Zubietako erraustegiko langileek haien lantokiko ezaugarri zehatzak jasoko dituen lan hitzarmen duinaren aldeko borrokan segitzen

dute. Goiko irudia, ekainaren 23an ateratakoa da. Foru Aldundiaren egoitza atarian mobilizatu ziren. Hilaren 30erako berriz deitu dute elkarretaratzea toki berean, Donostiako Gipuzkoa plazan. Besteak beste, haien osasuna bermatzea galdegiten ari dira.



Ekainaren 18an Lasarte-Oriako anbulatorio atarian eginiko mobilizazioa.

## Osasun publikoaren aldeko herri plataformak mobilizazioaldi bete

Eskualde honetako osasun publikoaren aldeko herri plataformek mobilizatzen jarraitzen dute, batetik, katastrofikotzat jotako zerbitzuon egoera salatuta eta ESI honetako arduradunarekin biltzea galdegiteko. Hilaren 18an, Lasarte-Oriako anbulatorio atarian

mobilizatu ziren. Oraindik aipatu bilera eskaeraren erantzunik ez dutela jaso gogoraz zuten. Artean, Etengabeko Arreta Guneetan mediku falta dela salatuta eta herritaren osasuna arriskuan jartzen duela ohartarazi zuten beste behin.

## 'Xelebrekeriak', Arantxa Manterolak bildutakoak

### Aitonaren gomendioa (1962)

Joxemingo, mutilkozkorra, negarrez dator etxera, plazan jo egin dutela-eta.

-Aitona Naxariok: *Etzak negarririk egin, motel! Jotzen hauenari muturre-*

*ra parra egitea duk hoberena.*

-Mutilkozkorrek begietara serio-serio begiratu eta, jata zapla! belarrondokoa aitonari: *Orain egin beza, ba, par!*


### Kuerda

Hor ari da Kartero-eneko "Beltza" mekanikoa motoa arrankatu ezinik: brrruuummmmm, brrruuummm ...

-Joxe Herrerok, hurbilduz: *Zer, urrutira al hoa?*

- "Beltzak": *Zer, ba?*

-Joxek: *Kuerda asko ematen ari haiz-eta!*



Unai Gaztelumendiren komiki-tira, TOKIKOMeko hainbat hedabideren eskutik.



Usurbilgo irakurle gazteen topaketako azken saioko argazkia.

# Irakurri, marraztu eta idazteko txokoa bilakatu da Sutegiko ganbara

Bi taldetan banatuta antolatu dituzte saiok ikasturte honetan, eta amaierako saioan bi taldeek elkarrekin jardun zuten. "Zomorropoemak", "Galtzerdi Suizida" eta "Bihotza Dun-Dun" liburuak izan dira aurrean irakurri dituzten liburuak batzuk.

**ASIER GONZALEZ DE SAN PEDRO**  
9 urtetik aurrerako gazteek irakurketa topaketak egin dituzte ikasturtean zehar, eta joan den ekainaren leko saioa izan zen azkena.

Sutegi udal liburutegiak antolatuta, bertako ganbaran elkartu dira topaketak egiteko, eta Yolanda Arrieta idazlea izan dute bidelagun saio horietan guztietan. Arrietak irakurketarako duen maitasuna igorri nahi izan die gazteei. Horretarako, beti ere literatura abiapuntu izanik, hainbat ariketa prestatzen zituen saio bakoitzeko. Arrietak proposatuta, gazteek liburu bat irakurri behar dute saiora gerturatu aurretik, eta gero, bertan hainbat jolas

egiten dituzte irakurritako pasarteak baliatuz.

Ekainaren leko saioan "Mozkorrak" poema irakurri behar zuten, eta haien imajinarioa baliatuz, mozkorrek zeudenaren plantak egiten zituzten gazteek poema irakurterako orduan, baita mozkorrek izaten duten zotina ere gehitu zuten irakurketara.

**LIBURUTEGIKO  
IRAKURKETA  
TOPAKETETAN  
YOLANDA ARRIETA  
IDAZLEA IZAN  
DUTE BIDELAGUN**

Hainbat liburu irakurtzeaz gain, marrazteko eta idazteko txokoa ere bilakatu da Sutegiko ganbara.

Bolon, aingerutxo, ate-joka, musuzapia... Horiek izan ziren Usurbilgo irakurle gazteen topaketako azkeneko saioan irakurleek nabarmendu zituzten hitzak. Horiek guztiak Xabier Olasoren "Punpu tra-

**"BERRIRO IZEN  
EMANGO NUKE,  
LITERATURAZ  
GEHIAGO JAKITEKO  
AUKERA ONA  
DELAKO"**

puak" liburutik aterata dauden hitzak dira. Nabarmendutako hitz horiek lotu egin behar dituzte. Denek istorio txiki bat osatu zuten, bakoitzak bere modura, araurik gabe eta gero ozenki irakurri zituzten.

## Aurrekariak

2020-2021 ikasturtean hasi ziren horrelako topaketak antolatzen Sutegin. Ez dute ikasturte osorako egitasmo gisa planteatu inoiz. Aurrean, hainbat saio antolatu dituzte eta saio bakoitzerako izen-ematea zabaldu dute. Saioko hamar lagun elkartu dira, batez beste.

Duela sei urte hasi zen ekimena, eta gazteen gustu literarioa lantzeko eta ikuspegi kritikoa garatzen joateko sortu zuten: "Beraien hautuetan sartzen ez ziren liburuak irakurtzera gonbidatzeko; beste era batera esanda, gustu literarioa lantzeko, ikuspegi kritikoa garatzen joateko... eta urteak aurrera joan ahala, LH3-LH4n hasi ziren batzuk ibilbide hori nola egiten ari diren ikusten ari gara", azaldu dute udal liburutegiko langileek.

Urteak aurrera joan ahala, gazte batzuen ibilbildea ikusten ari dira. Izan ere, batzuk hasierako saioetatik dabilza egitasmoan, eta ibilbide hori "ederra" dela aitortu dute antolatzaileek.

Bi taldetan elkartu ohi dira kurtsoan zehar: 9 urtetik gorakoan taldea eta 11 urtetik gorakoan taldea. Pare bat aldiz elkartu da talde bakoitza liburu baten bueltan. 2025-2026 ikasturtean irakurritako liburu batzuk "Zomorropoemak", Leire Bilbaoren liburua; "Galtzerdi Suizida" eta "Txan Fantasma", Mariasun Landarena; "Aitona Floren", Karmele Mitxelena; "Bihotza Dun-Dun", Miren Agur Meaberena; "Txokolategia" eta "Mari Xar", Yolanda Arrietarenak; "Euskal Herrietako ipuinak", Juan Kruz Igerabiderena; "Sorginak",

Roalda Dahl-ena, besteak beste.

Gauzak horrela, aurten, bi taldeak elkarrekin antolatutako saioa egin zuten kurtso amaieran, lehen aipatu dugunez ekainaren 1ean, literatura eta sormena landu eta garatzeko.

### Irakurleak

20 haur inguru elkartu ziren azkeneko saio horretan, eta barre eta algara artean igaro zuten saio osoa, baita lotsatuta ere. Helene, Enara, Maren, June, Izar, Ane, Lierni eta Ani izan ziren gerturatutako batzuk, eta haien esperentziaz hitz egin dute hedabide honenkin.

Gehienentzat ez zen lehenengo aldia izan topaketa batzuetara gerturatzen zirena, denek aitortu baitute lehena ere egondakoak zirela eta oso ondo pasatu zutela. Hori jakinda, berriro izen ematea erabaki zuten: "Izena eman nuen oso ondo pasako nuela uste nuelako, eta oso ondo pasa dut".

Saio asko izan dituzte, eta liburu "asko" irakurri dituztela aitortu dute, baina bakoi-tzak bere gogokoa zein izan den azaldu digu. Enarari, Izarri eta Aneri gehien gustatu zaien liburua "Xomorropoemak" izan da; Lierni eta Aniri "Sorginak"; Juneri "Aitona Floren"; eta Maren "Gutunak Birramamari" liburua.

Hala ere, baten batek ezin izan du liburu bat soilik aukeratu. Heleneri denak asko gustatu zaizkio, eta Aneri, "Zomorropoemak" liburuaz gain, "Orkestra lurtarra" gus-tatu zaio.

Denekala denek esperentzia errepikatu nahi dute "oso ondo" pasa dutelako, bai lagunekin baita irakurtzen ere.

"Berriro izen emango nuke, literaturaz gehiago jakiteko oso aukera ona delako", aitortu du Anik. Helenerentzat oso esperentzia "polita" izan da, eta Junek "dibertigarria" dela aitortu du.

## ZER DIYO?



YOLANDA ARRIETA MALAXETXEBARRÍA IDAZLEA

# Giro bat irakurketari

**Z**er da irakurketa? Munduari hitza jartzea. Jaiotzeaz bat hasten da, eta heldu baten presentzia eskatzen du: bitartekaria. Bitartekari hori doa haurrari erakusten eta irakasten nola izendatu jasotzen ari den informazioa: uau-uau, ma, ta, miau, pa... Ahotsaren bidez doa bitartekaria umeak jasotako informazioari izena ematen: txakurra, ama, aita, katua, musua... Hala bada, bitartekariaren laguntzaz doa umea munduko izenak ikasten eta bizidunon gertaerak izendatzen. Hizkuntza barneratzen. Prozesu horretarako bidelaguna dugu Literatura, Haur Literatura. Berez, ez da ezer lantzeko sortu. Ez da hori bere helburua, baina Haur Literaturak dena lantzeko eta jorrazteko aukera ematen digu, munduaz eta bizitzaz ari den neurrian.

Artearen adar bat da, hau da, pertsonon ikuspegitik kontatzen ditu gauzak eta zerbait eragin nahi du irakurlearengan: zirrara. Haur Literaturak umea bere osotasunean hartzen du eta bere osotasunean eragiteko moduak bilatzen ditu: hitz-jokoak, irudi iradokitzaileak, kolore bereziak, hotsak, esaerak, errimak, pertsonaia esanguratsuak...

Arteak norbanakoaren barne-mundura heltzen laguntzen digu kode sozial baten bidez. Literaturaren Arteak hitzaren esanahietan murgiltzen gaitu, beti ere norbanakoa taldearekin lotzeko bidean; alde batetik, pertsona gaiten gaituzten



"Hitzaren Arteak pentsatzea eskatzen du". ARGAZKIA: NOAUA

baliabideak aktibatzen ditu —memoria, irudimena, zentzumenak eta emozioak— eta, bestetik, baliabide pertsonal horiek besteekin estekatzen ditu, sormenaren bidez, izan narrazioan izan poesian. Hitzaren Arteak martxan jartzen du sormena, modu sistemikoan, eta balio erantsia eskaintzen die irakurketari eta idazketari, pertsona bere osotasunean hartzen duelako, nitasunetik gutasunerantz.

Bizitzari buruzko adibideetan murgiltzeko beharrezkoa zaigu, ordea, adibide horien lengoia ezagutzea. Liburu bat irakurtzeko ezinbestekoa da letrak bereiztea, baina letrak izendatzearekin, bakarrik, ez da bukatzen irakurketa. Hitzaren Arteak pentsatzea eskatzen du. Eta pentsatzeak sosegua eskatzen du, patxada, arreta, jakin-mina.

**"LITERATURA-SOLASALDIEK ZUBI-LAN HORRETAN TREBATZEKO AUKERA PAREGABEA ESKAINTZEN DUTE"**

Irudiez lagunduta egon edo ez egon, hitzek adierazi nahi dutena barneratzeko gai izan behar du irakurleak, eta batzuetan laguntza behar du, bitartekaria behar dugu: gurasoa, irakaslea, zaintzailea, liburuzaina, hezitzailea edota guztiak batera.

Irakurketa instrumentalak datuak eskaintzen ditu; irakurketa literarioak fikziozko adibideak eskaintzen ditu, pertsonon bizimoduetan txertatuta, "haiek eta gu" enpatiariketa etengabea. Beraz, literaturaren irakurketak bestelako jardura bat eskatzen du: bakarkako ariketa izatetik esperentzia sozial eta partekatua izateko zubi-lana. Literatura-solasaldiek zubi-lan horretan trebatzeko aukera paregabea eskaintzen dute. Irakurketari buruzko kontzeptua zabaltzen dute. Ekintza sozial bilakatzen dute norbere buruaz pentsatzea eta besteengana hurbiltzea. Fikzioa dute osagai. Hizkuntza, bidea. Ahotsa, tresna. Errespetua, araua. Giroa berotzen dute: irakurketarako giroa.



50 urte betetako Lanbide Eskolak abiaraziko ditu Usurbilgo jaiak. Mende erdia ospatzeko ikasturtea borobildu berri dute.

# Merezitako gorazarrea jaien hasieran, betetako mende erdiari

Usurbilgo jai batzordeak erabaki du nortzuk emango diete hasiera aurtengo herriko festei. Iaz bezala, bi eragile izango dira aurtengoan; 50 urte betetako Zubieta Lanbide Eskola eta Usurbil F.T. Iazko omenduen antzera, aurtengoek ere badute lotunerik urtemugaz haratago.

## ARITZ LASARTE

Gogoan izango duzuenetz, iaz 40 urte betetako Zumarte Musika Eskolak eta Ziortza Gazte Elkarrekin izan zuten Usurbilgo jaien ofizialki ekiteko ohorea. Aurtengoa, hamar urte gehiago, mende erdira heldutako Zubieta Lanbide Eskolak eta Usurbil F.T.-k piztuko dute udalerrri hau bost eguneko ospakizunen zurrumbiloz murgilaraziko duen lehen suziria. Uztailearen 1ean izango da, arratsaldeko 19:00etan udaletxeko balkoitik. Herritarrei hautagaiak udal instalakuntza hainbatetako kutxetan idatziz nahiz telematikoki emailaz proposatzeko eginiko deialdi irekitik hautatu dituzten jai batzordeak bi eragileok

izatea aurtengo festak abiaraziko dituztenak.

## Abiapuntu partekatua

Bistan denez, bi alor ezberdinetan eta kokagune banatan dihardute omenduak izango diren bi eragileak; Zubietan bata, Kalezarko Haranen bestea. Lanbide Eskola bat eta futbol kluba bestea.

**"GARAIO  
TESTUINGURU  
HAREN ISLA DIRA  
USURBIL FUTBOL  
TALDEA ETA  
LANBIDE ESKOLA"**

Iaz, Zumarterekin eta Ziortzarekin gertatu moduan, aurtengo omenduen arteko lotune agerikoena, biek ala biek betetako 50 urteak dira, baina ez bakarra, badira gehiago ere. Izan ere, bi eragileok martxan jartzen aritutakoen artean badaude zenbait izen, bien sorreran auzolanean jardundakoak.

**"ERAKUSKETA OSO  
POLITA DA ETA OSO  
ARGI IRUDIKATZEN  
DU KLUBA NOLA  
JOAN DEN  
HAZTEN"**

Izan ere, egitasmo, proiektu berri askoren eraikitze eta jaiotze urtea izan zen 1976a. Garaiko testuinguru haren ispilu dira Usurbil F.T. eta Zubieta Lanbide Eskola. Hutsetik hasitakoak biak; Lanbide Eskolakoak Udalak eragile gehiagoren laguntzaz parrokiak Aginagan utzitako lokaletan hasi zuten haien jarduna. Usurbil F.T.-k, egungo Harane futbol zelaia gerora eraiki zenez, sortu berritan Orion entrenatzen zuen osaturiko talde bakarrak.

## Hazten

Mende erdian garapen itzela izan dute biek. Horren erakusle argia da, ekainaren 27ra arte Sutegin (ostegunetik larunbatera, 18:00-20:00 artean) ikusgai izango duzuen hilaren 12an irekitako Usurbil F.T.-ren mende erdiko ibilbidea irudikatutako erakusketa. "Oso polita da eta oso argi irudikatzen du kluba nola joan den hazten, nola hasi ziren talde bakarrarekin eta nola gauden gaur egun. Datorren urtean, gainera, gehiago izan gaitzke", aurreratu digute Usurbil F.T.-ko zuzendaritza taldeak.

Usurbilgo Lanbide Eskolak Aginagatik Zubietara lekuz aldatu eta hazten jarraitu du baita gaur arte. Herri horren izena hartu du 50. urtemuga honetan. Usurbil F.T.-ren antzera, ospakizun ikasturtea izan dute honako hau. Duela urtebete hasi zuten zikloa hain zuzen, txupinazoa jaurtiko duten eremu berean, Usurbilgo Udaleko udalbatza aretoan amaituko dute. Iazko ekainean, 50 urteon harira erakunde adierazpena onartu zuten udalbatzak. Urtebete geroago urtemuga zikloaren nahiz Lanbide Eskolaren beraren sorreraren abiapuntura itzuliko dira. Orain arte jorratutako ibilbidea omentzeko modua izango da. "50 urte horietan jende asko pasatu da ikastetxetik. 50 urteotan saiatu gara eskualdean, Usurbili

→ ikaskuntza zerbitzuak ematen, gizartea etorkizuneko prestatzen. Orain, guztia hasitako lekuan, 50 urte ondoren, leku berean txupinazoa botatzen" ikusiko dute haien burua. Mende erdia borobiltzeko ezin aproposagotzat jo dute hitzordua. Pozarren jaso zuten berriki, udaletik herriko jaiei ekiteko gonbita. "Azkenean, ikastetxea Zubietan egon arren, usurbildar ere sentitzen gara. Usurbildar askorentzako lan egiten dugu", adierazi digute Lanbide Eskolatik.

Usurbil F.T.-tik herri honen bizitzako urteko bi hasiera ekitaldi nagusietan parte hartuko dute aurten. Izan ere, aurtengo Sagardo Egunari ekiteko ohorea izan zuten, 50 urte betetako Saizar sagardotegikoekin batera. Oraingo honetan, herriko festak abiarazteko merezimendua izango dute. Elkarrizketatu genituen unean, bi omenduak prestatzen hastekotan ziren udaletxeko balkoitik adierazi nahi dutena. Izan ere, haien eguneroko hamaika lanen artean, urte berezia bizitzetik datoz.

### "Irakasleek izandako balentria"

Zubieta Lanbide Eskolak maiztaren 30ean borobildu zuen 50. urtemugari eskainitako ikasturtea, Zubietako herrian ospatu zuen. Aurretik, urriaren Aniztasun Kulturalaren Egunaren bueltan, eskolako ikasleek ordezkaturiko komunitate ezberdinetako jatorrizko pintxoak sukaldatu eta dastatzeko aukera izan zuten, solidarioa izandako ekimenean. Urtean zeharreko plangintzan txertatu ohi dituzten ekimenei bide eman diete, baina 50 urteon testuingurura egokitu dituzte aurtengoan. Esaterako, urtarrilaren 30eko Lanbide Heziketaren Egunez, ginkana erraldoia egin zuten, "oso parte hartzailea eta aberasgarria" izan zela oroitarazi digute. Martxoaren 8an ikastetxetik igarotako emakumeen argaz-



Usurbil F.T.-k emango die hasiera herriko jaiei. Aldez aurretik, 50. urtemuga jaialdia ospatuko dute ekainaren 27an.

kiak jarri zituzten. Ikastetxearen "50 urte hauetako nortasunaren" ardatzetako bat izandako euskarari bere nazioarteko egunaren harira ikastetxearen anekdota historikoei lotutako galderen jolasa antolatu edota argazki zaharrekin egutegia kaleratu zuten.

Ikastetxeko komunitatea blaitu dute ospakizun hauek guztiok. Urtemuga honi lotutako zikloa baliagarria izan zaie eguneroko jardunean bezalaxe, komunitate gisa sendotzeko, baina baita iraganera begiratuta, sorreratik orain arte eginiko ibilbidea aintzakotzat hartzeko ere. "Egun duguna betidanik izan dela dirudi, baina hori lortzeko jende asko aritu da lanean. Haiek erakutsi digute nondik etorri den guztia", nabarmendu digute. Urteotan lan egingandako haiei guztiei esker ona

**"EGUN DUGUNA  
BETIDANIK IZAN  
DELA DIRUDI BAINA  
HORI LORTZEKO  
JENDE ASKO ARITU  
DA LANEAN"**

adierazi nahi diete lerroon bidez. Besteak beste, haien ausardia nabarmendu digute; "orain arte irakasleek izandako balentria egitasmo berrietan parte hartzeko". Izan ere, sarritan aipatu da hamarkada hauetan, "Zubietako ikastetxea proiektu berri guztietan sartuta egon eta horren aldeko apustua" sustatzen duela. Ildo horretan, kokatu dute langileen aipatu hamarkadotako ausardia. "Ikastetxe on asko dago Euskadi mailan, baina Lanbide Heziketan Zubieta Lanbide Eskolak badu bere indarra", 50 urteotan agerian utzi duten moduan.

### Bitan elkarrekin

Bitan elkartuko dituzte jaiok Zubieta Lanbide Eskola eta Usurbil F.T. Izan ere, festei hasiera emateaz gain, aurtengo soka-dantzan parte hartzera gonbidatu dituzte. Udaletxe

**"BITAN ELKARTUKO  
DITUZTE AURTENGO  
JAIOK ZUBIETA  
LANBIDE ESKOLA  
ETA USURBIL  
FUTBOL TALDEA"**

atarian dantzan ikusi ahalko ditugu uztailearen 2an, 12:00etan hitzorduarekin bat egingo duten udal ordezkariekin batera.

### Usurbil F.T.-ren jaieguna

Ospakizunon atarian, aipatu dugunez, Lanbide Eskolak bere mende erdia oroitzeko zikloa amaitu du, Usurbil F.T.-k ez, ordea. Asteotan Sutegin izandako erakusketa bisitatu ahalko duzue ekainaren 25etik 27ra, 18:00-20:00 artean. Horrekin batera, larunbatean ospakizun eguna izango du futbol taldeen bilguneak. Izan ere, goizean, 10:00etatik aurrera, futbol eskolakoentzako eta infantil mailakoentzako ginkana antolatu dute. Gero, txaranga ibiliko da herrian zehar eguerdian nahiz arratsaldean ere. The Hastelen ́s taldekoak gonbidatu dituzte iluntzeko erromerirako Mikel Laboa plazan eta haien ostean, Dj saioa izango da. Ospakizunon tartean, bazkaria egingo dute Agerialdeko frontoian. Egunotan izan da izen-emateko aukera. Txarangak giroturiko otorduan, urtemugako lepokoak banatu eta sortzaileak nahiz bidelagun izandako hainbat kide eskertu asmo dituzte.



Uxue Martin eta gurasoak, Uxue Paseoa hasi aurretik irteera gunean.

# Parte-hartze marka hautsi du Uxue Trailek

6. Mendi Lasterketa Solidarioak 800etik gora partaide erakarri zituen ekainaren 14an.

## ARITZ LASARTE

"Aurtengoan ere, erantzuna eredugarria izan da", nabarmendu zuten antolatzaileek probaren amaieran. Izan ere, pozarren agertu ziren ekimenaren parte hartze marka guztiak hautsi ostean. 35 lagunek eskuratu dute dortsal solidarioa aurtengoan. 405

lagun erakarri zituen Uxue Paseoak, 419 lasterketak, tartean ziren, 66 herrikide. Esker ona adierazi zieten seigarren edizioa ahalbideraturiko guztiei. "Eskerrik asko bihotzarekin korrika egiteagatik, ikerketari laguntzeagatik eta phelan mcdermid sindromea egunetik egunera ikusgarria-

goa izan dadin laguntzeagatik". Izan ere, ekimen solidarioaren xedea gogorarazi zuten. "Gaur phelan mcdermid sindromea ikusarazteko eta pertsona eta familia askoren bizitza alda dezakeen ikerketa babesteko gaude"; tartean, Usurbilgo Uxue Martin eta bere hurbi-lekoena. "Aurrerapen zientifiko bakoitzak sindromea hobeto ulertzen, tratamenduak hobetzen eta kaltetutako pertsonon eta haien familiei itxaropen berriak eskaintzen lagun dezake. Gainera, detekzio goiztiarra eta laguntza egokiek alde handia eragin dezakete bizi-kalitatean". Aurten, lasterketa bakarra izanik (bi ziren iaz arte), banaka nahiz binaka parte hartu ahal izan da.

## Sailkapena

### Bikoteka

- Bikote mistoa: Iruñe Lertxundi eta Jon Beldarrain (Orio), 1:09:15.
- Bi emakumezkoen osaturiko bikotea: Irene Zaldúa eta Ane Galarza (Zizurkil), 1:25:46.
- Bi gizonezkoen osaturiko bikotea: Azeddine Elhamidi eta Xabi Barandiaran (Zegama), 1:02:50.

### Banaka

#### Emakumezkoak

- 1.- Lorea Barkaiztegi Begiristain (Lasarte-Oria): 1:14:25.
- 2.- Nerea Garcia Larrañaga (Donostia): 1:16:33.
- 3.- Nerea Goikoetxea (Ordizia): 1:16:52.

#### Gizonezkoak

- 1.- Mattin Odriozola Iburguren (Oiartzun): 0:56:32.
- 2.- Beñat Bereziartua (Usurbil): 0:57:11.
- 3.- Fernando Magano Aguado (San Sebastian de Los Reyes): 0:59:17.

Sailkapen osoa kronoak.com atarian ikus dezakezue.

## "ESKERRIK ASKO BIHOTZAREKIN KORRIKA EGITEAGATIK, IKERKETARI LAGUNTZEAGATIK"



Lehenengo hiru emakumezko sailkatuak.



Lehenengo hiru gizonezko sailkatuak.



6. Uxue Trail Mendi Lasterketa solidarioko protagonistak.



Jendetza Uxue Paseoaren nahiz Uxue Lasterketaren irteera gunean.



81 urteko Antxon Aranburu, sortzez usurbildarra helmugaratu zen unea.



66 usurbildarrek parte hartu zuten lasterketa solidarioan.



Uxue Paseoan irtendakoek Urdaiaga inguruak zeharkatu zituzten.



Bizi asko abiatu ziren mendi lasterketa solidarioko partaideak Andatarantz.



Mendi lasterketatik bueltan, irribarrea galdu gabe helmugan.



Beroa izan zuten bidelagun, Andatzara igotakoek.



Xauxar txosna batzordeko kideek eman digute uztailaren 1eko gazte antzerki arrakastatsuari buruzko xehetasunen berri.

# "Aurten ere antzezlanaren denon gustukoa izatea espero dugu"

Uztailaren 1etik 5era ospatuko diren Usurbilgo jaietako Mikel Laboa plazako txosnagunea, azken urteotan ikusmina eragin ohi duen gazte antzerkiarekin irekiko dute aurtengoan ere. Ekimen arrakastatsua prestaketen azken fasean dira jada Xauxar txosna batzordeko kideak.

## ARITZ LASARTE

Azken urteotan, bitan hasi ohi ditugu jaiak; lehenbizi, udal-letzeko balkoitik eta geroago, Mikel Laboa plazako txosnen eremutik. Bigarren honek, azken urteotan ikusmin itzela eragin izan du. Belaunaldi askotako herrikideak gazte txupinazoa noiz hasiko zain izaten dira. Jakin badakite eta, txosnagunea ireki eta herriko festak abiarazteko uneak izango duela ezustekorik. Azken urteotan, gazte mugimenduak ondutako antzezlan aldarrikatzaile batekin hasi dituzte festak frontoi atzean. Azken bi urteotako deigarri askoak izan ziren; 2024an sare sozialak eta komunikazio bide horietan zabalduko "coaching"-

aren fenomeno eta horri lotutako mezu erreakzionarioak izan zituzten mintzagai. Iaz, Francoren heriotzaren 50. urtemuga irudikatu zuten, diktatorea bera berzpituta. Mundu mailako egungo agintari ezagunak gonbidatu zituzten erdaraz eginiko bertso txapelketa berezi batera. "Francoren itzulera irudikatu genuen 50 urteren ondoren, umoretik, herriari erakusteko faxismoak

**"SAIORA IRITSI AURRETIK, JENDEA ZAIN IZATEN DEN SENTSazioA BADUGU"**

bizirik jarraitzen duela". Gogora ekarri digutenez, bortitza izan zen "bandera falangista atera eta eskuarte izatea, oso arrotza noski". Bi testuinguruon artean bada lotunerik, Xauxar txosna batzordeko esanetan. Errealitateon aurrean alternatiba bat aldarrikatzen dute gazte antzerkiaren bidez, aldarrikatzailea den jaietako espazio horretan. "Txosnagune-ko balioak eta aldarriak

**"JENDEAK ONDO PASATZEN DU. PARODIA UKITU HORI JENDARTERA IRISTEN DA"**

bertan esplizituki azaltzen dira". Horien artean, herri ikuspegitik herrira begira gazte-artearen sustatzen duten auzolana.

## Aldarriak parodia bidez

Duela urtebeteko gazte antzezlanak izandako harreraren adibideetako bat da, noski, jaso zuten txalo zaparrada, edota entzundakoen artean, soinu teknikariek adierazi zieten. "Galdetzeraz etorri zitzaigun ea antzerki talde bateko kideak ote ginen. Txosnen batzordetik ateratako ideia izan zela erantzun genion". Gainerakoan, urtez urte, haien sorkuntza lanak oso harrera ona jaso dutela nabarmendu digute Xauxar txosna batzordekoek. "Gu emanaldira gertatu aurretik betetzen da txosnagunea. Gu iritsi aurretik jendea zain izaten den sentazioa badugu". Horregatik, txosnagunearen irekiera hutsetik, gazteei zuzenduriko emanaldia izatetik, "herri ikuspegi zabaleko" ikuskizun-ean bilakatu da festak abiatzeko gazte antzerkia.

Hartueman sortu eta sendotzen doa, urtez urte gazte antzezleek eta aurrean haiei begira izan ohi diren ikus-entzuleen artean. "Aldarriekin jendea identifikatua sentitzen da, baina aldi berean ondo pasatzen du antzezlan ikus-ten. Parodia ukitu hori jendartera iristen da. Urteetik urtera, ekitaldira geroz eta jende gehiago bertaratzeko bada horren sintoma".

## "Umore puntua eta une aldarrikatzailea"

Iaz izandako arrakastaren ondorekin, aurtengo prestaketen ari dira. Iazkoa hain borobila izan eta gero, adierazi digutenez, "presio puntu horrekin" murgilduak dira azken fasean. Sormenerako iturria zein ote den, antzezlanon abiapuntuaz galdetu diegu. "Hasieran, nahiko amaiera aldera naturaltasunez sortutako ideia izaten zen. Gero, sistemati-

—> zatu genuen egitarauan, hitzordu garrantzitsua izango zela gazte antzerkia". Azken edizioetan, urte hasieratik martxan jarri ohi dute lantalde bat. "Batzuetan, nahiko hasieratik ideia lotzen genuen eta gero, hilabeteetan zehar, ideia garatzen genuen. Beste urte batzuetan, ideia batekin joan gara eta jaiak hasi baino hiru aste lehenago beste bat bururatu, gehiago gustatu eta horrekin jarraitu izan dugu", azaldu digute Xauxar txosna batzordetik. Horregatik, gaineratu dutenez, urteroko ideien bilaketa lana, "urtez urte, forma ezberdina hartzen duen zerbait izaten da. Gustuko izan edo konbentzitzen gaituen ideia hori bilatu arte, bilera ezberdinetan ideiak trukatzeko ditugu".

Sormen prozesu horrek "umore puntua eta une aldarrikatzailea" izan ohi ditu, baina gazte antzerkiaren sustatzaileentzat hori beti "zerekin lotu" baduten artean. Lehenengo bi antzezlanak, esaterako, "balio zehatz batzuen aldarrikapenean" oinarriturikoak izan zirela gogor arazi digute, baina 2024koan eta iaizkoan, "gaurkotatasuneko eta aldi berean, kezka sortzen duten" gaiak plazaratu izan dituzte parodien bidez.

### Etsipenari aurre egiteko

Xauxar txosna batzordeko kideekin bildutako unean, "gidoia ixteko puntuan" ziren, "entseatzeko hastekotan", aditzera eman zuten. Guztiz ulergarria den moduan, ez dute lerroon bidez ezagutzera eman nahi zer plazaratuko duten uztailaren 1ean. Hala ere zertzelada orokor batzuk ematea erabaki dute. "Gazteen eta ez hain gazteen egungo mundu ikuskera, egun dagoen ezegonkortasun egoera hori erdigunera" ekarri asmo dute; horri lotuta, "dena hain gaizki doan, dena konponezina den, etsipenak eragindako desafekzio politikoa eta de-



lazko jaien hasieran, txosnagunea irekitzeko gazte antzerkian parte harturikoak.

saktibazioa" plazaratuko dute. Zehaztu digutenez, gazteen artean "bada halako etsipen bat, gure errealitatea aldatzeko gaitasun falta dugula, borroka garaiak iragandakoak izan zirela erabat barneratua izateagatik".

Egungo testuinguru horretatik, "orokorra izan, baina gazte guztion kezketatik ulertzen dugun" etsipen horretatik nola atera, horretaz ariko dira festen hasieran. Ezin aproposagotzat jotzen dute une hori, gai hau kaleratze baliatzea. Izan ere, adibidetzat jarri dute, abiatzeaz ditugun herriko jaietako txosnagunea bera. "Bost egunetan zenbat lan egiten duten gazteek, zer helduleku hobeagorik halako espazio hurbilak eta herrikoak baino, etsipen horren aurrean aktibaziorako deia egiteko eta nork bere eremutik eragiten jarraitzeko deia egiteko".

**"GUSTUKOA DUGUN IDEIA BILATU ARTE, BILERETAN IDEIAK TRUKATZEN DITUGU"**

Hortik aurrera, "zer aldarrikatuko dugun norberak sumatu dezala". Adi egon beharko dugu, beraz. Prestatzen ari direna, hilaren 1ean ezagutu ahalko dugu, Orbel-diko dantzariak arratsaldeko 20:00etan frontoian eskainiko duten emanaldia amaitu bezain laster. "Aurten ere espero dugu denon gustukoa izatea. Txosnen irekiera una izango da. Herri osoa bertara joatera gonbidatzen dugu".

Bai hasiera ekitaldira, nahiz bost egunetan bertan prestatu-riko ekimen eskaintza zaballean murgiltzera ere gonbidatu gaituzte. "Aurten, gonbidatu berezi asko egongo dira", aurreratu dute Xauxar txosna batzordetik. Adierazi digutenez, festei ekiteko "gogotsu gaude. Hilabete asko daramagu lanetan horretarako". Aurreko urteen ildotik, aurtengoan aldatuko ez den ezaugarri izango du txosnaguneak. "Betiko apustua

**ETSIPEN HORRETATIK NOLA ATERA, HORRETAZ ARIKO DIRA FESTEN HASIERAN**

egin dugu, ahalik eta herritar gehienentzako espazioa izateko. Aldi berean, gazteok borrokarako espazio gisa bizi dugun aldarrikapenerako bost egun eder izango dira".

### Bertsio Gaua

Txosnagunea irekiko duen gazte txupinazoarekin eta bertan eskainiko duten sorkuntza lanaren ondotik, gau berean, herritarrek ikusiko ditugu Mikel Laboa plazako oholtza berean. Frontoi atzekoa, sorkuntza lan handi baten oholtza izango da bitan uztailaren lehenean. Izan ere, jada festen ekimen eskaintzan guztiz errotua dagoen Bertsio Gau arrakastatsuen edizio berri bati tokia egingo diote gaueko 22:30etan hasita. Xauxar txosna batzordetik jada, parte hartzaileen zerrenda zehaztu dute. Honako hauek musikatuko dute Usurbilgo jaien lehen gaua; Matxirulotik At!, Elurretan ta Pikuta, Bat Egin, Xirula Mirula, Analgesia, Ze Esaten!, Untxi Gaiztoa, Ximona ta Dolox, Udala Brigada Eroa, Lehendakariaren Mintzoa, The Furuns, Marmoxak, Extremoduro, Txokoesnea, Kalezar Records eta Churreria, Joder! izenekoek hain zuzen.

# Agur musikatua, 2025-26 ikasturte oparoari

Ekainaren 10etik 18ra agurtu zuen Zumarte Musika Eskolak 2025-26 ikasturtea, herrian eskainitako kontzertu sortarekin.

Uurbilen bizi izandako ikasturte amaiera mugituari soinu-banda ezarri dio Zumarte Musika Eskolak azken asteotan. Izan ere, irakasleak eta ikasleak plazaratu zituzten ekainaren 10etik 18ra antolatutako sei emanaldiek.

## Ekimenekin bat

Zumarte Txiki eta kantu teknikako ikasle gazteek, talde instrumentalek, Zumarte eta Altsasuko saxo taldeek, Zumarte Gazte abesbatzak eta Kantu Teknikako ikasleek

edota Musika Txokoko, Musika Mintzairako eta instrumentuetako ikasleek parte hartu zuten herriko txoko ezberdinetan eskainitako emanaldietan. Izan ere, gune desberdinetan oholtzaratu zuten ikasturteko lanketa. Herri erdiguneko toki bat baino gehiagotara hedatu zuten amaitzeaz zirela denboraldia eta herritarrekin agurtu nahi zutela iazko irailean abiarazitako jarduna. Hala, musika eskola ataria, Sutegi, frontoia edota



Zumarte Txiki eta kantu teknikako ikasle gazteek eskainitako emanaldia.

kalejiren bidez igarotako herri erdiguneko leku gehiagotara zabaldu zuten haien emanaldien oihartzuna. Tartean, ekainaren 14ko 6. Uxue Trail Mendi Lasterketa Solidarioaren amaiera musikatu zuen saxo taldeak edota hilaren 18ko azken kalejirak bat egin zuen, segidan, denboraldi hau agurtze-

ko Orbeldi dantza taldeak hasitakoarekin.

**"IKASTURTE AMAIERARI SOINU-BANDA EZARRI DIO ZUMARTEK"**



Abeslari eta musikari talde gazte baten emanaldia frontoian.



Musika eskolako talde instrumental txikiek eskainitako kontzertua.



Talde instrumentalak abesbatzako kideekin batera.



Musika Txokoa, Musika Mintzaira eta instrumentuetako ikasleak kalejiran.

# Euskal Herriko zuhaitz eta arbolen liburuaz solasean

"Zuhaitzak eta arbolak Euskal Herrian" liburua aurkeztu zuen Jakoba Errekondok ekainaren 16an Sutegin.

Jakoba Errekondorekin batera, Markel Arriolabengoa, Iñaki Etxebeste eta Dani Blanco dira liburuaren egileak. Argia aldizkariak argitaratutako liburu honetan, Euskal Herriko zuhaitzek eta euskaldunek eman dioten erabilera azaltzen da, baita zuhaitz bakoitzeko bitxikeriak ere. Usurbilgo udalak ere babestu du liburua. Argitalpena idazteko prozesua Errekondoren kezka batetik abiatu zen. Haren ustez, euskaldunek lotura asko izan dute beti zuhaitze-

kin, eta lotura eta jakintasuna galtzeko beldurraren aurrean, liburua egitea erabaki zuen, Arriolabengoarekin eta Etxebesterekin batera.

Aurkezpenean, liburuaren nondik norakoak zein izan diren azaldu zituen Errekondok. Guztira, 116 espezieren erabilerak eta bitxikeriak, besteak beste, bildu dituzte. Zuhaitzei dagokionez, Euskal Herriko hainbat txokotan zuhaitz bakoitzari deitzeko modua nabarmendu zuen. Elorri beltzak ditu izen gehien, patxa-



Jakoba Errekondo liburuaren aurkezpenean, ekainaren 16an Sutegin.

rana egiteko basararak ematen dituen zuhaitza. San Juan baleontzia egiteko erabili diren egurrak zein diren ere azaltzen da liburuan. Hiru hitzaurre, hamabost adituren testuak, ehun ilustrazio, 235 zuhaitzen eta arbolen mapa bat, 1.096 argazki eta 5.000 hitzeko "altxorra" jaso dituzte. Sei urteko lana izan dela aitortu zuen,

duela hilabete aurkezturiko liburua.

**'ZUHAIKAZ  
ETA ARBOLAK'  
LIBURUA SEI  
URTEKO LANAREN  
EMAITZA IZAN DA**

# Egurrezko ontzietako 18 sagardo lehian

Egurrezko ontzietan ondutako sagardoan Euskal Herriko seigarren txapelketa jokatu zen ekainaren 14an Aginagan.

Alkartasuna Usurbilgo Base-ritarren Kooperatibak eta Sagardoaren Unibertsitateak antolaturiko lehiaketaren zazpigarren edizioan Iker Agirrezabala izan zen txapelduna; bigarren postuan, Olarbidetak egindako sagardoa sailkatu zen; eta hirugarrenean, Joxe Mari Zubimendikekoitzitakoa. Guztira, hemezortzi sagardogilek hartu zuten parte. 26 pertsonak hemezortzi sagardoak dastatzeko aukera izan zuten, Aginagako Eliza Zaharrean jokaturako hitzorduan. Hiru mahaitan banatu zituzten dastatzaileak eta epaileak.

Aurtengo epaileak Maider Larrañaga sommeliera, Irati Amondarain enologoa eta Bittor Barandiaran, "Bittor Kass" ezizenekoa, izan dira. Aurreko edizioen ildotik, parte hartzaileek ekainaren 11ra arte izan zuten ekimenean izena eman eta norberak ekointzietako sagardoa Alkartasuna kooperatibaren egoitzan aurkezteko epealdia.

**Sagardoaren etorkizuna**  
Ekimen hau, urtean zehar sagarraren eta sagardoaren kultura sustatzeko antolatzen den hitzorduetako bat izan ohi da.



Lehiaketako txapeldunak eta antolatzailak, aurtengo edizioeko sari banaketan.

Aldez aurretik, Sagardo Egurenaren baitan eginiko txapelketa izan ostean, aurreko edizioa duela bi urte, 2024ko ekainean egin zuten estreinakoz Aginagako Eliza Zaharrean, bertako elkargunea kudeatzen dutenekin lankidetzan. Edizio hura aurkezteko alde aurretik antolatzailak eginiko aurkezpen deialdian nabarmendu zuten, "sagardoaren etorkizuna egurrezko ontzie-

tan" dago. Ildo horretatik segita, gaineratu zuten, "geroz eta garrantzia handiagoa eman nahi diogu" ekimenari.

**"ELIZA ZAHARREAN  
BATUTAKOEK  
SAGARDO GUZTIAK  
DASTATU AHAL  
IZAN ZITUZTEN"**

# "Euskara esanindartzeko bidean..."

UEUk, Jakinek eta Udalak antolaturiko Jakin Jardunaldia egin zuten ekainaren 18an eta 19an Artzabalen.

"Euskara esanindartzeko bidean: adierazkortasuna euskaraz lantzeko eztabaidak, gakoak eta hautuak" Udako Euskal Unibertsitatea UEU-k, Jakinek eta Usurbilgo udalak antolaturiko Jakin Jardunaldia egin zuten hilaren 18an eta 19an Artzabalen. Hainbat mahainguru era hitzaldiak egin zituzten. Aurtengoa, hamargarren edizioa izan da, eta 54. udako ikastaroen baitan antolatu dute. Hasiara ekitaldian Agurtzane Solaberrieta Usurbilgo alkateak, Aitor Bengoetxea UEUko zuzendariak eta Haritz Azurmendi Jakineko proiektu arduradunak har-

tu zuten hitza. Solaberrietak nabarmendu zuen, UEUren, Jakinen eta Usurbilgo udalaren arteko elkarlanak ibilbide luzea egin duela. Aurreko urteetako esperientziak "bikainak" izan direla nabarmendu zuen alkateak, eta aurtengoa "ilusioz" antolatu dutela adierazi zuen. "Erosoa, erraza eta aberasgarria" dela bi erakunde horiekin elkarlanean aritzea, gehitu zuten. Usurbil "ezagutzaren, jakin-minaren eta kulturaren topaleku" izatea nahi zuen, eta horregatik jarri zuten jardunaldietarako plaza gisa. "Aretoa ikusita esango nuke, hitzordu honek euskal



Jakin Jardunaldiari antolatzaileek hitza hartuta ekin zioten.

kulturaren agendan tokia hartu duela", gehitu zuen Solaberrietak. Bengoetxeak, ikastaroak "hausnarketa eta gogoeta gune" izatea nahi ditu. Aurtengoa, euskararen adierazkortasuna izan dute hizpide. Usurbilgo udalarekin antolatutako hamargarren edizioa dela uste du Bengoetxeak, eta "beste hamar egiteko prest" daudela aitortu zuen, izaten duten arrakasta ikusita taldea bete egin baita. Bi eguneko

jardunaldian, Euskal Herriko euskararen gainean lan egin duten hainbat kazetarik, iker-tzailek eta itzultzailek parte hartu zuten.

**"HITZORDU HONEK EUSKAL KULTURAREN AGENDAN TOKIA HARTU DU"**

# Emakumeen Etxeak erritmo biziak agurtu du ikasturtea

Askotariko ekintzekin osaturiko topaketarekin agurtu du Emakumeen Etxeak 2025-26 ikasturtea.

Udaberriko ikastaroen nahiz aholkularitza zerbitzuen balorazioa, udazkeneko ikastaroen proposamenak, parekidesun sailaren nahiz talde sustatzailearen aurkezpena... Horri guztiari tartea eman zioten iragan asteko topaketan. Batukada doinu biziak eman zioten amaiera Emakumeen Etxeko ikasturteari.

## Ikastaro amaiera

Gogoan izan, ikasturte honetan zehar batukada femi-

nistan trebatzeko aukera izan dute Usurbilgo emakumeek Arantzazu Albizu Escobarrekin eta Ainara Sarasketa Alberdirekin, "musikara gerturatu eta ondo pasatzeaz gain, beste emakume batzuekin batera talde-lanean aritzeko, sormena landu eta autoestimua igotzeko. Denok garelako musika egiteko gai, baita gauza berriak sortzeko ere. Irudimena landu eta besteak entzuten ikasteko. Emakumeok kalera irten eta



Emakumeen Etxeko kideek Pelaioenen atarian eginiko talde argazkia.

espazioak okupatu bitartean jendeari gozarazteko".

Ikasturte amaiera honetan herriko kale eta plazak hartu dituzte. Lehenbizi, Pelaioeneko eraikin atarian aritu ziren hilaren 18an, auzo erdigunea haien doinu biziak girotzen. Gauza bera egin zuten gero, kalejiran

abiatu zirenean herri erdigunerantz.

**"DOINU BIZI ETA DANTZAGARRIEKIN, GOGOTSU GIROTU ZUTEN HERRIA"**

# Ikasturte amaiera jai giroan, Zubietan eta Aginagan

Udaberri Festarekin agurtu dute ikasturtea Zubietan eta ikasleen jaialdiarekin Aginagan.

Jada oporraldi betean dira Zubietan eta Aginagako eskoletako ikasleak. Festa giroan agurtu dute gainera 2025-26 ikasturtea.

Aginagako eskolak ikasleen jaialdi batekin amaitu zuen ekainaren 19an Eliza Zaharrean.

Antzezlanak, dantzak, lehiaketak... eta gehiago tartekatuz zituzten.

Zubietako eskolako guraso elkarteak bestalde, Udaberri Festa antolatuz maiazaren 27an hasi eta ekainaren 12an borobildu zutena. Tarte horre-



Aginagako eskolako ikasturte amaierako emanaldiko parte hartzaileak.

tan, askotariko ekintzekin giroturiko bost arratsalde pres-tatu zituzten: dantza eta antzezlan saioak, krosa, jolasak,

txaranga, eskulan tailerrak... Udako oporraldiaren ondoren, ikasleak gogotsu bueltatuko diren esperantzarekin.



"Oaintxe in deu" txaranga kideek girotu zuten Zubietako Udaberri Festa.



Zubietako Udaberri Festan eginiko pintxo eta tortilla lehiaketa.



Zubietako dantza taldeak abiarazi zuen bertako Udaberri Festa.



Aginagako eskolako ikasleak, ekainaren 19ko ikasturte amaierako jaialdian.

**Antxeta**  
TABERNA  
egunero irekitzen dugu!  
eguneko menua · asteburuko menua  
oilasko erreak, ogitartekoak, raziak...  
paellak enkarguz!  
943 54 43 12 Zubiaurrenea 6, Usurbil.

**BORDATXO**  
taberna  
Pintxo Bereziak  
943 37 10 42

**URDAINTZI S.L.**  
Eraikuntzak  
649 43 54 75  
943 36 72 64  
IT-ak egiten dira  
ERAIKUNTZAK-OBRAK-ERREFORMAK

**ZENDOIA**  
ENEAtaberna  
Kale Nagusia 35, Usurbil



Iker Agirrezabala, sagardoa egiteko erabiltzen duen kupelaren ondoan. ASIER GONZALEZ DE SAN PEDRO

# "Azken momentura arte zalantzan ibili nintzen, aurkeztu ala ez"

**IKER AGIRREZABALA** SAGARDOGILEA

Anaiarekin hitz egitean erabaki zuen 'Egurrezko ontzietan ondutako sagardoan Euskal Herriko VII. Txapelketan' parte hartzea. Sagardoa egitea betidanik ikusi duen prozesua izan da.

**ASIER GONZALEZ DE SAN PEDRO**  
**Nola hasi zinen sagardoa egiten?**  
Ama Itziarrekoa dut, eta haren jaiotetxean sagardoa egin izan dugu. Beraz, txikitatik jakin izan dugu zer den sagarra biltzea, sagarra jotzea, botilatzea...

Txikitatik ikusi dudana zerbait izan da, eta gustatu izan zai-guna. Osabari sobratzen zitzaiona lau anaiok hartzen joan ginen, eta konturatzerako kupelak jarrita genituen, eta kupelak betetzen hasi ginen.

**Lehenengo aldia da txapelketan parte hartzen duzuna?**

Ez, parte hartzen dudana bigarren aldia da. Duela bi urte parte hartu nuen, eta ez dakit

nola gelditu nintzen, baina ez nuen irabaztea lortu.

**Zure aitaginarrebak ere irabazita duen txapelketa da. Trukoren bat elkarbanatzen duzue?**

Trukorik ez da. Kupelera sartzen duzun generoa izaten da garrantzitsuena. Genero ona sartzen baduzu kupelean, gero

**"TRUKORIK EZ DA. KUPELERA SARTZEN DUZUN GENEROA DA GARRANTZITSUENA"**

genero ona aterako zaizu; erdipurdikoa sartuz gero, erdipurdikoa aterako zaizu. Aurtengoak Debako sagasti bate-tik hartutako sagarrekin egingakoa izan da.

Generoa kanpotik erosten dugu, eta gero lagun batek sagarra jotzen digu. Hark esan zidan garai batean egiten zen

**"TXIKITATIK JAKIN DUGU ZER DEN SAGARRA BILTzea, SAGARRA JOTzea EDOTA BOTILATzea"**

gisara egingo zuela: sagarra jo, eta zuzenean likido bereizi beharrean, haren hondakinekin utzi zuen beratzen. Uste dut, horrek ere bere gustua emango ziola.

**Zergatik egiten duzu sagardoa egurrezko kupeletan eta ez beste mota batekoetan?**

Egia da beste mota batzuetan erosoagoa dela garbitzeko eta mantentzeko lan gutxiago edukitzea delako. Baina, niretzako kupelak badu zerbait, bizia duen zerbait da egurra.

Egur horrek ere gustu pittin bat ematen dio. Guk sagardoa bi urtetik behin egiten dugu.

**Beraz, sagardoa egiteko prozesua egurrezko kupeletan egitea zailagoa da?**

Bai. Kasu honetan, egurrezkoetan lehenbailehen botilaratu egin behar da. Herdoilgaitzekoarekin, tenperatu neurtu daitekeenez, gutxi gorabehera nahi duzun garai-koa egin dezakezu sagardoa.

**Kupeletako egurra kontuan izaten duzu?**

Ba egia esan ez. Anaiarekin hizketan egon nintzen egurrezko kupeletan egiteko, eta gaztainondoko kupelak hartu genituen. Horiekin gustura ibili gara.

**Nola jokatu zenuen irabazle zirela jakitean?**

Niretzako sorpresa handia izan zen. Azken momentura arte zalantzan ibili nintzen aurkeztu ala ez. Nik ezin izan nuen txapelketa egunean joan. Telefonoa begiratu nuenean dei asko nituen, eta ez nekien zer gertatzen ari zen. Esan zidatenean, poza sentitu nuen.

Etxekoekin ere hitz egin nuen eta haiek ere gustura zeuden.

**Txapelketan parte hartzea errepikatuko duzu?**

Nik baietz esango nuke. Behin irabazi dugunez, bai errepikatuko dut. Beti ere, sagardoa egiten jarraitzen badugu.



2025eko uztailetik 2026ko ekainera bitartean egindako begirale ikastaroak diruz lagunduko dira.

# Euskara eta aisialdiko dirulaguntza deialdiak

Dirulaguntza gehien oinarriak otsailaren 12an kaleratu zituen Usurbilgo Udalak. Lerro gehienetarako eskabideak aurkezteko hilabeteko epealdia izan zen. Ez denetarako, ordea; izan ere, oraindik orain zenbait deialdietan parte hartzeko epealdiak zabalik segitzen du.

## ARITZ LASARTE

Horiez gain, amaitzear dugun 2025-26 ikasturte honetan zehar, euskara ikasten aritu nahiz aisialdiko begirale edo zuzendari gisa jarduteko tituluak eskuratzeko hezten ari-tutakoei zuzenduriko deialdiez ari gara.

### Euskara ikasitakoei zuzenduriko dirulaguntza deialdia

- Xedea: "2025-2026 ikasturtean helduentzako euskalduntze- eta alfabetatze-ikastaroak egin dituzten usurbildarrei dirulaguntzak ematea".
- Onuradunak izateko baldintzak:

-Usurbilen erroldaturiko 16 urtetik gorako euskara-ikaslea izatea.

-Gutxienez, ikastaro osoan zehar, %80ko asistentzia izatea (autoikaskuntzaren kasuan aprobetxamendua ziurtatzea).  
-Gutxienez aprobetxamendua gainditzea (euskaltegiak egindako ziurtagiriaren bidez egiaztatutako beharrekoa).

- Diruz lagundu daitezkeen ikastaroak:  
-Habek homologatutako ikastaroak (2005eko uztailearen 27ko ebazpena, 2013ko irailaren 12koa eta 2025eko urriaren 20koa): modulazio ezberdinetako ikastaroak, autoikas-

kuntza, EGA, alfabetatze-ikastaroak eta C2 mailakoak, xede berezietarako ikastaroak...

-Ikastaro ez-homologatuak: modulazio txikikoak, baina betiere ikasturtean zehar urrats bat gainditzen bada eta euskaltegia ere homologatua bada.

- Dirulaguntzen zenbatekoa: herritar guztiek matrikula kostuaren %100 jasoko dute (gehienez ere 600 euro), aipaturiko baldintzak betez gero. Aipatutako ehunekoak gutxitu egin daitezke aurkeztutako eskaeraren arabera. Hau da, dirulaguntzetarako dagoen dirua baino handiagoa bada

eskaera, proportzionaltasunaren irizpidea aplikatuko da.

### Aisialdiko begirale edo zuzendari tituluak lortzeko dirulaguntzen deialdia

- Xedea: "2025-2026 ikasturtean zehar aisialdiko begirale edo zuzendari ikastaroa euskaraz egin duen usurbildar orori dirulaguntzak ematea".
- Onuradunak izateko baldintzak:

-Usurbilen erroldaturiko 16 urtetik gorakoa izatea.

-Ikastaroa euskaraz izatea eta Eusko Jaurlaritzak homologatua izatea.

-Ikastaroaren alderdi teorikoa gainditzea eta araututako gehienezko epearen barruan titulua lortzea. Araututako epearen barnean titulua lortu ezean, itzuli egin beharko zaio udalari jasotako dirulaguntza.  
-Interesdunak titulua eskuratu izanaren agiria aurkeztu beharko du Udalean 2028ko uztailearen 31 baino lehen.

- Diruz lagundu daitezkeen ikastaroak:

-2025eko uztailetik 2026ko ekain bitartean egindakoak, Eusko Jaurlaritzak homologaturiko aisialdiko begirale ikastaroa edo aisialdiko zuzendari ikastaroa.

- Dirulaguntzen zenbatekoa:  
-Begirale ikastaroa: matrikularen %50 (gehienez ere 250 euro).

-Aisialdiko zuzendari ikastaroa: matrikularen %50 (gehienez ere 250 euro).

-Aipatutako portzentaje hau gutxitu egin daiteke, aurkeztu diren eskarien arabera.

- Eskabideen aurkezpena: udal erregistroan edo telematikoki usurbil.eus atarian.

- Eskabideak aurkezteko epealdia: ekainak 23-uztaileak 7 (bi egunak barne).

 943 361 182  
**EROSKI/city**  
kale Nagusia 10, USURBIL

ZUEN PUBLIZITATEA HEMEN

**943 360 321**

noaua@publizitatea.eus

  
**Otar-Goxo**  
Elkargaiak  
Zubiarrenea 2, 943 36 55 81



Oiaro kirolegia itxita egongo da abuztuaren 1etik 16ra. Uztailearen 2a ere, jai-eguna izango da kirolegian.

# Udako ordutegira egokitzen doaz hainbat zerbitzu

Urtero moduan, uda garaira helduta, hainbat zerbitzuko ordutegia egokituko dute datozen hilabetei begira.

## Sutegi udal liburutegia

Ekainaren 24ra arte, orain arte bezala, goizez eta arratsaldez irekiko dute asteleheneretik ostiralera, 10:00-13:00 artean eta 16:00-19:30 artean.

Aldiz, hilaren 25etik 30era itxita egongo da Sutegi udal liburutegia. Urtero moduan, tarte bat hartuko dute barruko lanetarako. Gero, uztailearen 1etik aurrera udako ordutegia izango dute indarrean.

Informazio gehiago:  
biblioteka@usurbil.eus  
943 360 693  
688 625 477 (whatsapp).

## Oiaro kirolegia

### Ekainaren 30era arte:

- Lanegunetan: 6:30-21:30.
- Larunbatetan: 8:30-21:30.
- Igande eta jaiegunetan: 8:30-14:30.

### Uztaile-abuztua:

- Lanegunetan: 7:00-20:15.
- Larunbatetan: 9:00-13:00.
- Igande eta jaiegunetan: 9:00-13:00.

### Itxiera egunak:

- Uztaile: 2.
- Abuztua: 1-16.
- Abendua: 24, 25, 31.

## KzGunea

Ekainaren 30era arte asteleheneretik ostiralera goizez zabalduko dute, 9:00-13:00 artean. Hilero aldatu egiten dute irekiera ordutegia. Honenbestez, uztailearen 1etik 30era arratsaldez irekiko dute KzGunea, 16:00-20:00 artean. Hilabete horretan, hilaren 2an eta 31n itxita egongo da, jaiegunak izango baitira. Abuztuaren itxita egon ostean, irailaren 1ean irekiko dute berriz.

## Atalluko Garbigunea

Atallu industriagunean kokaturiko zerbitzuaren ordutegia:

- Uztailearen 15era arte: asteleheneretik ostiralera, 10:15-12:50 eta 16:00-18:50 artean zabalik; larunbatetan, 09:00-12:50 artean irekiko dute. Igande eta jai-egunetan itxita.
- Uztailearen 15etik irailaren 15era: asteleheneretik ostiralera, 10:15-12:50 artean eta 16:00-18:20 artean.

Larunbatetan, 09:00-12:50 artean.

Igande eta jai-egunetan itxita.

## Euskotren

Aste hasieraz geroztik indarrean du udako ordutegia. "Euskotrenek bere eskaintza egokitzen du udako beharrak asetzeko. Horrela, trenen zerbitzu erregularra indartu egingo da hondartzak dituzten kostaldeko herrietara joan-etorriak errazteko", jakinarazi du Euskotrenek. Hala, asteburuetan, urtean zehar orduero izaten da tren zerbitzua. Udako hilabeteotan eguerdi partetik aurrera, orduerdi eskainiko dira zerbitzuok.

## Bidez Bide bus-taxi zerbitzua

Usurbilgo udalerrri barruko Bidez Bide doako bus-taxi zerbitzuak ere egokituko du ordutegia uda partean.

Uztailearen 1etik aurrera goizez bakarrik ibiliko da bidean, arratsaldeetan ez uztaile osoan.

Abuztuaren etenda egongo da eta irailaren 1etik aurrera ohiko ordutegira itzuliko da.

Uztailari dagokionean, 7:30ean, 10:30ean eta 13:30ean abiatzen diren zerbitzuei eutsiko die bus-taxiak; arratsaldekoak (15:30/19:00) bertan behera geratuko dira.

Informazio gehiagorako deitu 630 643 596 telefono zenbakira. Ordutegi osoa usurbil.eus atarian jaso ahalko duzue.

**"OIARDOKO UDAKO ORDUTEGIA UZTAILEAN ETA ABUZTUAN IZANGO DA INDARREAN"**

**ARANKA BERRIKUNTZAK**  
 · Fatxaden estaldurak · Estalkien berritzatzeak  
 · Barruko berrikuntzak · Gremioen koordinaketa  
 · Igeltseritza orokorra  
**606 37 21 05 USURBIL**

**ANDATZA TABERNA**

UDAKO ORDUTEGIA  
 8:00 - 23:00 Igandetik ostiralera  
 8:00 - 24:00 Larunbatetan  
 Sukaldea 22:00etan ixten da.

EGUNEKO MENUA  
 ASTEBURUKO MENUA  
 KARTA  
 RAZIOAK  
 OGITARTEKOAK

Kaleazar Auzoa 12, 08, USURBIL Tel 943 73 20 27

**Urtaiz, s.l.**  
 Igeltseritza Orokorra  
**693 059 392**  
 urtaiz@urtaiz.com USURBIL

## MERKATU TXIKIA

## ETXEBIZITZAK

## ALOKAIRUAN

Kirol-esparruko gazteei edo irakasleei alokatzeko gela bat daukat Usurbilen. 658706447

Usurbilgo hiru gazte alokairuko etxe baten bila gabiltza. Etxebizitzaren inguruko edozein informazio izanez gero, eskertuko genizueke gurekin harremanetan jartzea: 688 643 044

Usurbilen edo inguruetan alokairuan gela edo etxe txiki baten bila nabil. Pertsona bakarra eta diru sarrera finkoekin. 943498917 (9:30-13:30).

25 urteko gazte bat naiz. Logela bat alokatu nahiko nuke. 647594529

Gela edo apartamentu txiki bat alokatu nahi dut. 24 urte, Isaac. 673607486.

## EROSI

Usurbilgo erdigunean etxe bat erosi nahiko nuke. Ahal dela bi logelakoa. 615007418

## IRAGARKIA JARTZEKO:

NOAUIKO BULEGOTIK PASA

ERREDAKZIOA@NOAUA.EUS

943 360 321

## GARAJEAK

## SALMENTA, GARAJEAK

Garajea salgai Etxealdian. 14 metro koadro. 685707278

Garaje itxia salgai herri sarreran. 646 601 947 (18:00etatik aurrera).

## LANPOSTUAK

## LAN ESKAINTZAK

Aginaga sagardotegian asteburuetarako zerbitzari bila gabiltza: 943 37 06 68 / info@aginagahotela.com

- Astelehenero 12:00ak arte jasotako iragarkiak bakarrik iragarriko ditugu.
- Iragarki berriak sartu ahala, zaharrak ezabatuko ditugu.
- NOAUAK ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzukizunik.

Andatza taberna sukaldari laguntzailer bila dabil. 627841927.

## LANPOSTUAK

## LAN ESKAERAK

Garbiketa eta zaintza lanak egiteko prestutasuna eta esperientzia dauzkate. Interna moduan, orduka, gauez edo egunez, astebukaeratan. Ikasketa homologatuak eginda. Harremanetarako: 624082492

Adineko pertsonak zaintzeko edo garbiketa lanak egiteko eskaintzen

dut nire burua. Harremanetarako: 747 446 091.

Lan bila nabil. Edozein lanetan aritzeko prest. 611 22 94 65.

Lan bila nabil. Lanerako gogotsu. 677 257 929.

Garbiketa lanak, haur zein pertsona helduen zaintza lanetan aritzeko lan bila dabilen neska bat naiz. 604302785

Garbiketa arloan edo pertsona helduak zaintzeko prest. Titulu sozio-sanitarioa daukat. 627879720.

Externa zein interna bezala lan egiteko. 676 282 206.

## BESTELAKOAK

Reiki saioak eskaintzen ditut. Harremanetarako: 677086147.

Klase partikularrak emateko prest DBH 1-3 arteko nahiz LH-ko ikasleei. 628 57 28 04.

## TELEFONO INTERESGARRIAK

Udala	943 371 951	Gure Pakea Egoitza	688 836 728
Atez ateko bulegoa	900 776 776	Gure Elkarre Egoitza	686 554 145
Udaltzaingoa	943 361 112	Arrate Zahar Egoitza	692 898 492
Egurtzegi	943 300 563	Salbatore Parrokia	943 361 239
Gizarte Zerbitzuak	943 377 110	Korreos - posta zerbitzua	943 362 894
Bake Epaitegia	943 372 336	Anbulategia	943 362 013
Oiardo Kiroldegia	943 372 498	Amenabar botika	943 376 076
Sutegi Udala Liburutegia	943 360 692	Iturralde botika	943 363 395
Potxoenea	943 371 999	DYA	943 464 622
Kzgunea	943 023 684	Gurutze Gorria	943 272 222
Zumarte Musika Eskola	943 371 594	Emergentziak	112
Etumeta AEK euskaltegia	607 609 379	Genero-indarkeria, arreta	016
Emakumeen Etxea	943 377 112	Gonzalez Ehorztetxea	943 362 163

## Santxo-Urruzola bikotea finalera iritsi da

Usurbilgo 53. Pilota Txapelketa, amaierara begira da jada. Asteburuan jokatu ziren lehiaketako finalerdiak. Finalisten artean, usurbildar bat izango da, Xabier Santxo Sagardia. Berarekin lehiatuko da Behar Zana taldeko Urruzola. Biak dira finalerako sailkaturiko bikoteetako bat; bestea Txoperena-Goikoetxea leitzararak.

Bi bikoteok uztailaren 2an lehiatuko dira final handian.

Gogoan izan, iaz Santxo-Urruzola izan zen txapelketako bikote garailea. Aurten, berriz finalera iritsi dira. Txoperena-Goikoetxea izango dira aurkariak.

## Usurbilgo LH. nagusien txapelketako finalerdiak:

Santxo-Urruzola 22  
Sasiain-Arroita 18

Txoperena-Goikoetxea 22  
Galartza-Galartza 13

## Urte askotarako!

Zorion itzazu senitartekoak eta lagunak:

## Posta elektronikoa

Mezua bidali [erredakzioa@noaua.eus](mailto:erredakzioa@noaua.eus) helbidera, eta idatzi: izen-abizenak, urtebetetze-eguna eta nahi duzun testua.

## Bulegoa

Etor zaitetz gure bulegora edo telefonoz deitu: 943 360 321.

## Oharra:

Astelehenero 17:00ak arte jasotako zorion-agurrak bakarrik iragarriko ditugu.

Astelehenero 17:00ak arte jasotako zorion agurrak bakarrik iragarriko ditugu.

Hortik aurrera jasotakoak hurrengo astean argitaratuko ditugu.

## Zikiro janerako txartelak

Ekainaren 19an egin zen Aitzaga elkarte, Usurbilgo jaien baitan, uztailaren 4an egingo den zikiro janerako txartelen salmenta. Antolatuzaileek eskerrak helarazi nahi dituzte lerroon bidez, deialdiak izan duen harreragatik. Haien esanetan, urtero gehitzen doa hitzorduak erakarririkoen kopurua. Aurten, batzuk txartelik gabe geratu dira. Horren harira

dator, zikiro janaren prestatzaileek bideratu nahi duten oharra. Txartela erosi duen norbaitek zikiro janera joan ezin badu, txartelak itzultzeko deia egin dute.

## Telefono bidez

Horretarako, telefono zenbaki honetara deitzea galdegin dute: 608045479 (Igor). Hala egiten dutenei dirua bueltatuko diete.

## AGENDA

EMAIGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI ASTELEHEN EGUERDIA BAINO LEHEN. Tel.: 943 360 321 / erredakzioa@noaua.eus

## OSTIRALA 26

## USURBIL "Bizi dantzan!"

"Mugimendua, sormena eta inprobisazioa gorpuzten dituen dantza pieza. Usurbilgo Dantzalab, dantza laborategiko ikasleek eskainia".

19:00 Sutegi aurrean.

## USURBIL Sareren mobilizazioa

Euskal preso, iheslari eta deportatuen eskubideen alde.  
20:00 Mikel Laboa plazan.

## ASTELEHENA 29

## USURBIL Usurbilgo jaiak

"Santixabeletako argazki zaharren diaporama 1984-2024".  
19:00 Sutegin.

## ASTEAZKENA 01

## USURBIL Usurbilgo jaiak

06:00 Oilasko biltzaileen gosaria eta irteera, txosnetatik abiatuta...  
11:00 Kolore Festa frontoian.  
14:00 Oilasko biltzaileen itzulera eta bazkaria.  
18:30 Jaixkipe txaranga kiroldegitik abiatuta.  
19:00 Txupinazoa eta ikurrinaren igoera. Ondoren, herri kalejira.  
20:00 Herriko dantzariak frontoian.  
Jarraian, gazte txupinazoa eta txosnen irekiera.  
22:30 Bertsio Gaua txosnetan.



Argazki hau 2012. urtekoa da. IÑAKI AGIRRESAROBEBE

## Argazki zaharrekin osaturiko diaporama musikatua

Jaigiroa uztailearen lehen lehertuko da. Dena den, girotzen hasteko, festen inguruko proiektio bat ikusteko aukera izango dugu datorren astelehenean, hilak 29. Iñaki Agirresarobek mimo handiz prestatu du 'Santixabeletako argazki zaharren diaporama 1984-2024' izeneko emankizuna. 19:00etatik aurrera, Sutegin.

Diaporamak hiru ordu-laurdeneko iraupena izango du. Aurreko astean eskaini zigan elkarrizketan adierazi zigunez,

"diaporama musikatua izango da, eta gehienbat aurpegiak ateratzen diren argazkiak" ikus ahal izango ditugu. Argazki zaharrek ordea, bestelako ezaugarriak ere bistaratzen dituzte. Iñaki Agirresaroben esanetan, "diaporamak ohituretan izan diren aldaketak ikusteko balioko duela uste dut".

Iñakik azalpentxo bat emango du eta proiektioaren ondoren, ikusleen zalantzak argitzeko tarte bat zabalduko da.

## "Bizi dantzan!"

Usurbilgo dantza garaikideko taldeak urtean zehar egindako lanketa jendaurrean erakutsi eta etorkizunean, taldera batzeko aukera eskaintzeko emanaldia ikasurte amaierako emanaldia eskainiko du ostiralean, ekainaren 26an, arratsaldeko 19:00etan Sutegi kultur-etxearen atarian.

## Hurrengo bisita gidatuak

Abuztuan etenaldia izango da. Irailean izango dira saio gehiago:

## Ekainak 26, ostirala

• 10:00-11:30 Zaintzaren Usurbil bisita gidatua.

## Ekainak 27, larunbata

• 11:00-12:45 Bisita gidatu konbinatua: Museo Irekia eta Salbatore elizara bisita gidatua.

## Uztailak 11, larunbata

• 11:00-13:15 Museo Irekia eta Zumeta Arte Estudiora bisita (gaztelerez).

## Uztailak 24, ostirala

• 10:00-11:30 Zaintzaren Usurbil bisita gidatua.

## Uztailak 25, larunbata

• 11:00-12:45 Museo Irekia eta Salbatore elizara bisita gidatua.

## Uztailak 29, asteazkena

• 10:00-11:00 Zero Zabor bisita gidatua.

## Informazioa, erreserbak:

650usurbilbizi.eus

ARRANDEGIA  
**PELLO**  
9:00-13:30  
ASTEARTETIK LARUNBATERA  
PUNTAPAX 7, 650 31 31 91

ZUEN PUBLIZITATEA HEMEN

943 360 321

noaua@publizitatea.eus

TXAPELDUN

ARDANGELA



PLATERAK  
OGITARTEKOAK  
RAZIOAK  
ARROZAK  
OILASKO ERREA

Muna Iurra 2, 943 49 88 83



[www.noaua.eus](http://www.noaua.eus)



**EGIN ZAITEZ BAZKIDE ETA LORTU ABANTAILAK!**

# ikimilikiliklik

Vol.2

2026/07/18 | 22:30 | Doan  
USURBIL. Dema plaza

650  
USURBIL  
*bizi*



Jatorrizko Ikimilikiliklik bidekidekariarekin  
elkarrizketan sorturiko ikuskizuna

JATORRIZKO SORTZAILEAK

Abestiak: Mikel Laboa / Poesia: Joxean Artze / Arte-lanak: Jose Luis Zumeta

GAUR EGUNGO JOKALARIAK

ekoizpena: Loraldia / Zuzendaria: Edurne Azkarate / Zuzendari laguntzailea: Mikele Urroz Zabalza  
Musika-aholkularia: Iñaki Salvador / Sortzaileak eszenan: Iñaki Salvador, OREKA TX (Harkaitz Martinez de San Vicente eta Itziar Navarro), Libe Kortazar, Intza Alkain Zuzeneko, Itziar Garaluce  
Testu berriak Intza Alkain, Itziar Navarro, Edurne Azkarate Zuzeneko ikus-entzenezkoak Itziar Garaluce  
Argi teknikaria: Vanesa Santos / Soinu teknikaria: Mikel F. Krutzaga / Jantzitegia: Idoia Beratarbide  
Produkzioa, kudeaketa eta komunikazioa: Loraldia